

ETA MAITA HERRIA... (BOSGARREN ATALA)

Gerardo MUNGIA

Idoiak Patxiren sendia ezagutu du haren etxean. Afalorduan, nekazaritzaren etorkizun beltza dute hizpide. Patxik eta Idoiak elkarrekin bizitzea eta, denbora bat iraganda, ezkontzea erabaki dute. Ezkontzaren ondoren jota bat abestuz bukatuko da bosgarren atal hau.

6. JELKALDIA.

Ibaiertzean amodiotan izan dira elkarrekin xarmatuak. Handik, Patxiren gurasoen etxerat afaltzera doaz bestetako egun handia delakoz. Bikotea, jendez beterik den etxeko ezkaratzean sartzen da. Eneko (Patxiren anaia) Idoia eta Patxi agurtzera doa.

Jelki taulara Idoia, Patxi eta honen ahaideria ate urdinetik. Tauladako zoko batean arreba tikiak jostetan ari dira.

Eneko (anai gehiena)
69. Eta nor da andere hau?
Begi horiek hain distirant.
Zein pollita, zoin karana!
Erraguzue kuxian.

Idoia
70. Idoia ene izena.
Elkarrekin gabiltza biok.
Berriki gure kontua.
Zen(ren)dako hainbeste harrizio?

Eneko
71. Ongi etorri etxerat.
Barkatu trebekeria.
Pasa zaitetze salarat.
Ezagutu ahaideria.

Xabier (anaia)
72. Aita, amatxi, osabak,
Lehengusuak, ama, izebak,
Enekoren seme-alabak.
Tiki hauek gure arrebak.

Senideak eskualde ezberdinetarik joanak dira. Eta hasten dira afaltzen...

Fermin (aita)
73. Berriki Iturberoan
aurkitu ditek gizon bat
hil abantzu bertan zena.
Intoxikatua orobat.

74. Edan omen zian gaixoak
urbasa zena sinetsia,
maluruski ohar gabe
pozoitzen zuela bizia.

75. Intsektizida, abonuek
iturburuak kutsatu.
Lurpeko goaietan sartu.
Araztasuna mendratu.

Donado (osaba)
76. Lurra agortuta zegok.
Jadanikan lugorria.
Uzta erdia bilduko duk
lagun bagaitu zoriak.

Iñigo (lehengusua, kusia)

77. Intxaurrondoak landatu.
Ardiak, behiak idoki.
Abeltzaintza gainbehera.
Ari natzaizue serioSKI.


78. Abereekin beharturik.
Lanpeturik, ez bestarik.
Noiztik niha ur oporretan?
Ez diat oroitzapenik.

Maritxu (lehengusina, kusia)
79. Abonu, bihi etxeak:
Monsanto, Bayer, Dow Chemical...
Nekazaritzan nagusiak.
Hauek nola bara ahal?

80. Ihinzaketa sistemak,
urtegiak, ubide anitz.
Zer dituk, maula ala mauka?
Ni badaezpada kanpik.

Eunate (lehengusina, kusia)
81. Geroa, non? Landetxetan?

2011n «Telesforo Monzon» jokatu zen Larrainen. GAUR8



Herriak husten, ixiltzen.
Gure mundua ondikoz
ari zaiguk ezabatzen.

Izaga (arreba tikia)
82. Lagun guti jolasteko
hutsik baitira karrikak.
Bakarrik Mari ta biok
auzokoekin kilimixkak.

Alaitz (arreba tikiena)
83. Ni tikiena herrian.
Jolasteko Potxo (txakur kumea) baizik.
Banoaie berarekin
Ene adineko ez haurrik.

Patxi
84. Iraila diagu hurbil.
Aitzinatua duk uzta.
Arto-labore, soroak
aurten goldatu hobe markaz (lau hortze-
tako goldea)


Denak erretira. Taula hutsik geratu da.
Jelki artzainak ikusleen arteko korridore-
tik. Kantatzera doaz. Artzainak (ardiekin,
txakurrarekin eta astoarekin) igaiten di-
ra taula gainera.

3. KANTOREA: EUSKAL HERRIA, LAU URTARO
–Udaberriak zapart eginez,
gibelean utzirik negua.
Enarak, txirrinak, urubiak
tai gabe parekatze entseguan.
Landareen kimuak urratzen
zeru dunduaren soseguan.
Natura osorik pulunpatzen
amodioaren edanguan.

–Tamalgarria iduritzen zait
uzta ez duena izan bizi.
Lasto-haxeak, bihi horailak
astorki usaina eta kizki...

Ez joan, ez joan, ez joan... Lurraren
heiagora.
Ez joan, ez joan, ez joan... Arbasoen
galtoa.

–Larrazkenean palto ñabarrak.
Aitzinaturik dator mahaska.
Jitoak heldu mahats-biltzera.
Urrundik beren suak pindarka.
Udalde luze, idor izan da.



«...Senarra eta emaztea.
Ogi eta jaki bitez!»
Haira ARIZTEGI

Fruituak, igaliak metaka.
Pirinioko ibarretarik
artaldeak hegorantz marraka.

–Neguan karriketan salara.
Subilez egurtegia plenik.
Sukaldean umea katuka
Leka-kordak hagatik zintzilik.

Ez joan, ez joan, ez joan... Lurraren
heiagora.
Ez joan, ez joan, ez joan... Arbasoen
galtoa.

Artzainek, kantorea eman ondoren,
opilak banatzen dituzte ikusleriaren
artean. Gero guziak erretira. Orain
taulada garbitu behar... ardiak ibili

baitira. Taulada hutsik eta garbia ge-
ratuko da.

7. JELKALDIA

Denbora batez Idoia eta Patxi elkarre-
kin bizi izan dira. Orain ezkonduko di-
rela ebatzi dute.

Jelki taulara Idoia, Patxi, beren adis-
kideak eta senideak. Jelki Mera alkatea
eta haurrak. Euskal jaia.

Mera (alkatea)
85. Gaur ororen aitzinean
Patxi eta Idoia
ja ezkonduak zarete.
Elkarri jar uztaiak.

Haurrak
86. Gure adiskide hauek
bizi daitezela luzez.
Senarra eta emaztea.
Ogi eta jaki bitez!

87. Ezteiak ospe handian,
lagunek buru ditzagun!
Maitaleen nahiak haatik
bildutasun, barnatasun.

4. KANTOREA: JOTAK

–Zugandik hurbilago
Ai! maitea...
Nehoz baino gehiago.
Karana ezinago,
Sutan, irrikaz nago.
Gaua goaitan dago.
Ai! maitea...
Zugandik hurbilago.

–Gure bular gainean
Amodioa...
Ezartzen garenean.
Miazkatzen gaituenean.
Izerdi usainean.
Orgasmoaren minean.
Amodioa...
Gure bular gainean.

Airea: “Nafarroa” (Jean Mixel Bedaxa-
gar - Mila M. de Jaurrieta).

Jelki dantzariak erdiko bortatik: Ezkon-
berrien dantza. Gero, guziak taulatik
erretira.